


GUIPUZKOAKO ETORKIZUNERAKO IJITO ELKARTEAK AURKEZTEN DU

# Miguel eta Nekane

*Jjito Herria Historian*



**Irakaslearen liburuxka**



## AURKIBIDEA

Nor gara? .....3orr.

Zegatik komiki bat? ..... 4 orr.

Testuinguruan jartzea .....5 orr.

Metodologia eta Baliabideak .....9 orr.

Unitate Didaktikoaren helburuak .....10 orr.

Unitate Didaktikoaren eta DBHko curriculumaren arteko lotura .....11 orr.

Bibliografia .....15 orr.

Eranskinak..... 18 orr.



## NOR GARA?

Gipuzkoaren Etorkezinerako Ijito Elkarte, Gipuzkoako ijitoen beharretik jaio zen talde gisa onartuak eta ordezkatuak izateko, ijito herriaren nortasuna sustatuz.

Elkartetik erantzuna eman nahi zaie ijito herriaren zein jendartearen gehiengoaren behar zehatzei, ijito balioetan oinarrituriko ikuspegitik. Hori lortzeko, ondoko helburuetara bideratuta egiten dugu lan beti:

- Ijito herriaren sustapen sozial eta kulturala; jendartearen gehiengoari dagokionez haren berdintasuna lortzeko, baita haren ohitura eta tradizioen defentsa eta egokitzapena ere egungo garaietan.
- Laguntza eta lankidetzatza ijito herriari dagokionez jardunbide zehatzak kontuan hartzen dituzten erakunde publiko edo pribatu guztiekin.
- Ijito kultura, hizkuntza, historia eta ohituren azterketa, sustapena eta iraupena.
- Ijito herriarekiko hain argiak diren arrazismo edo bazterkeria forma ororen erauzketa, justizia, aniztasun eta askatasun helburuak lortzeko.

POKERFACE elkarte 2006an sortu zen zaletasun bera duten gazte talde baten ekimenez: komikia. Irungo Martindozenea Gaztelekuan ematen diren komiki tailer batzuetan hasi zen dena. 2005ean, tailer horietako ikasleen lanak jasotzen zituen lehenbiziko aldizkaria argitaratu zen; eta, orduetik aurrera, lanarekin jarraitzeko, elkarte sortzea pentsatu zen.

POKERFACE elkartearen xedeak komikiaren alderdi kulturala sustatzea eta gazteen parte-hartze aktiboa bultzatzea dira, beraz, ondoko helburuen lorpenerako lan egiten du: komikiaren alderdi kulturala sustatzea; gazteriari sormen eta kultur edukiko aisialdi eskaintza ematea, publikoak tailerren, jardueren eta abarren bidez elkarreraginean jardun ahal izateko; gazteek komikiaren edo oro har marrazkiaren gainean duten interesa erakustea; gazte elkarte lana zabaltzea eta elkartearen arteko lankidetzatza bultzatzea.

AGIFUGItik "Miguel eta Nekane, Ijito Herriaren historia" proiektua egiteko eskaera jaso ondoren, bertan parte hartzea erabaki genuen, gure ustez aukera ona baitzen bai gure helburuak gauzatzeko, bai beste elkarte batekin elkarlanean aritzeko ilusioz beteriko lan berritzaile hau garatzeko.

Gainera, komikiaren POKERFACE kultur elkarteak, egun, urteko hainbat jardueratan kolaboratzen du



beste elkarte batzuekin batera, kulturalki eta irabazi asmorik gabe; esaterako, AURRERATU ELKARTEArekin,

haurrentzako marrazki, plastilina eta makillaje tailerrak eginez.

## ZERGATIK KOMIKI BAT?

Proiektu honen xede nagusia ijito kultura eta historia jendarte osoari hurbiltzea da, bereziki gazteenei.

Gutxiengoan kultura eta historia gutxitan erakusten da ikasgeletan, ez ikastetxean, ezta unibertsitatean ere. Orduan, ijito herriak ez du iraganik? Jende askok ez du haren jatorria ezagutzen, genozidioa jasateko zorian egon zirela XVII. mendeko Espainian edo nazien kontzentrazio-esparruetan, eta Francok haren hizkuntza debekatu zuela. Horrela, balirudike juduak izan zirela Hitlerrek sarraskituriko bakarrak; eta euskara eta katalana Diktadura frankistan debekaturiko hizkuntza bakarrak. Baina ez horixe. Modu horretan gure jendartearen zati baten Historia eta kultura ezabatzen ditugu, ijitoena, hain zuzen.

“Miguel eta Nekane, Ijito Herriaren historia” komikiarekin, tresna original eta erakargarria erabili nahi dugu edukiak publiko gazteagoari hurbildu ahal izateko. Izan ere, komikiak berezko lengoia duen adierazpen-bitarteko bat da, ezagutzak transmititzeko gai, balioduna eta egokia.

Gure iritziz, ideiak transmititzeko bitarteko honek arreta bereganatzen du, erantzun emozionalak eragin, irudimena bultzatu eta, horrekin batera, ezagutza kultural eta historikoa errazago ulertzea sustatu. Gainera, komikiko marrazki eta testuen nahasketak bere zabalkundea bultzatzen du.

Badaude hainbat komiki Ijito Herriaren Historia laburki azaltzen dutenak; hala ere, gure helburuak bestelakoak dira. Ijito Herriaren Historia eta Kultura ez ditugu linealki erakutsi nahi, baizik eta gazteriaren hurbileko istorio baten bidez, auzoko, ikastetxeko, festetako... istorioen bitartez, eta transmititu nahi dugun edukiarekin lotu.

Erabili dugun hizkerak arrunta izan nahi du, betiere bilatzen duguna adieraztea lortuz gero: haur eta gazteengana errazago iristea.

Komikia “PokerFace” Komiki Elkartearen bidez gauzatu da, uneoro Gipuzkoaren Etorkezunerako Ijito Elkarteko kideen aholkularitza jasota, adituak direnak ijitoen gai historiko-kulturalean.



## TESTUINGURUAN JARTZEA

“Miguel eta Nekane, Ijito Herriaren historia” komikia sortu da irakasleei tresna bat eskaintzeko testuliburuetan apenas aipatzen den historia baten sarrera egiteko. Gertakari historikoez ari gara, non ijitoak, dela herri gisa, dela banaka, protagonista izan diren. Unitate Didaktiko honetako edukiak irakasleari komikia lantzen laguntzera bideratuta daude, material hau bere testuinguruan jarrita, edukietako batzuk hedatuta eta ikasgelan hausnartzeko gaiak adierazita.

“Miguel eta Nekane, Ijito Herriaren historia” komikiaren helburua ez da hainbat kapitulu historikoren kontaketa zehatza, baizik eta eduki hauen sarrera egitea eta, batik bat, irakurlearen jakin-mina piztea. Komikiaren erako modu informalean, ibilbidea egiten da ordena kronologikoan (Erdi Arotik hasi, Aro Modernotik igaro eta Aro Garaikideraino) abentura honetarako berariaz sorturiko pertsonaiek bizi dituzten gertakarietatik. Migelek, ijitoa, eta Nekane, ijitoa ez dena, bigarren hezkuntzako ikasleak biak ala biak, zenbait gertakari historikotan barrena eramango gaituzte, gertakizun batzuen, historiaren zati baten inguruko interesa piztea dutenak helburu, Gizarte Zientzien esparruan ia ahaztuta daudenak.

Hau lehenbiziko urrustzat jotzen da herri baten, ijitoen, iragana berreskuratzeko, jendarte honen zati duela hainbeste urte dena, duela mendeak! Hala, interesgarria iruditzen zaigun pasarte bat aurkitzen dugunean, ikertzen jarraitu ahal izango dugu, geure buruari galderak eginez eta zenbait hariri tiraka, askotan hautsez beteta egoten direnak baina informazio-mataza osoak ezkutatzen dituztenak gure burua aberasteko eta hainbeste beldur eta aurreiritziren jatorri izaten den ezjakintasunari aurre egiteko.

Komikia lau ataletan dago banatuta: egungo unea, ijitoak Iberiar penintsulara iritsi ziren garairako bidaia, ilustrazioaren garairako bidaia eta Espainiako Gerra Zibilari eta nazien kontzentrazio-esparruei eskainitako atala. Lan hau hainbat marrazkilarik egin dutenez, argumentu ezberdinen diseinuak aldatuz doaz, kasu batzuetan garaiaren arabera, elkarren artean bereiztea erraztuta.

Argumentu osoan, protagonistak iraganera eramaten dituen “ataria” haritz-enbor zahar bat da, euskal tradizioaren sinbolo eta ikur heraldikoa.

Jarraian, komikiaren argumentua aletu eta lan honetan islatzen diren zenbait aspektutan sakonduko dugu.

Ekintza, Zarautz bisitatzeko eskola-txango batekin hasten da, argumentuzko aitzakia dena Luzea Dorrea



zein herri horretako hondartza erakusteko, komikiaren xedeetako bat beteta horrela: Gipuzkoako geografiari

dagozkion paisaiak historiaren baitan txertatzea. Horren arrazoia da lan hau Gipuzkoako ikasleei hurbildu nahi zaiela, hurbilagoa eta ezagunagoa izan dadin, eta, bestetik, Gipuzkoako Etokizunerako Ijito Elkartearen lurralde historiko horretan kokatzen delako eta berarekin identifikatzen delako.

Protagonistak iraganerako beren lehen bidaiatik itzulitakoan, txangoak Azpeitira bidean jarraitzen du. Kasu honetan, irudien bidez islatzen dira Loiolako basilika eta inguruko parkeak. Ondoren, Oreretak izango du protagonismoa, San Markos gotorlekuaren zenbait postal esplizitu erakutsita, gero Miguelen aitoren kontakizunera igarotzeko, 1936. urteko Irun sarraskitua erakusten duena, Errepublikari leial ziztaizkion osteek, gudaroste "nazionalen" aurreragitea ikusita, mendebaldeko frontierantz erretiratzean mugako hiribildua erretzea erabaki zutenean. Azkenik, orainaldian kokaturiko pasarteak Gipuzkoako hiriburuko Alderdi Ederren kokatzen da, Donostiako Udaletxea atzean eta hiriaren bereizgarri diren tamarindoak gure haritzaren enborra inguratzen. Agurreko orrialdeak ez du paisaiarik erakusten, etorkizuneko agertokiei atea irekita utzita.

Lehenbiziko bidaiara itzulita, Miguelek eta Nekane denboraren ataria aurkitu eta berau zeharkatutakoan, ekintza Iberiar penintsulako zehaztu gabeko leku batean topatzen dugu, zehaztu gabeko data batean, 1499 eta XVI. mendearen erdialde artean, non ijitoen onarpena edo kanporatzea behartzen zuen errege katolikoek agindutako pragmatika zegoen indarrean. Ijito biztanleria XV. mende hasieran iritsi zen Iberiar penintsulara (Aragoiko Koroaren ibiltzeko baimen bat dago, 1415ekoa, ijito talde bati dagokiona). Une hartan, mendean hartu zituen "Turko Handia" (botere otomandarrak) eragindako beldurrak jota euren fedea galdu izanagatik penitentzia egitera Santiagora eta beste leku santu batzuetara zihoazen erromesei bezala egin zitzairen harrera. Ibiltzeko baimen horien bitartez, kondeek, dukeek eta nobleziako gainerakoek harrera adeitsua egiten zieten euren lurretan 50 eta 100 ijito bitarteko taldeei, buruzagi baten inguruan biltzen zirenak.

Testuinguru horretan kokatzen dugu gure istorioko fikzioa, benetan jazotako gertakari batzuetan, alegia, Diego Hurtado Mendoza jaunak eta Luna y María Cabrerak izandako harremanean, 1478an Guadalajaran zalditxapelketa batean ezagutu ondoren. Harreman hartatik Martin Mendoza, "Ijitoa", jaio zen, bizimodu eklesiastikoan jardun eta karrera distiratsu samarra izan zuena. Komikiak apur bat aurrerago egiten du denboran, esan bezala, eta ekintza kokatzen da Errege Katolikoek ijitoei erresuman ibiltzea debekatzeaz gain, epe laburrean kanporatuak izateko agindu zuten unean. Aldi "idiliko" hori bukatuta (1425-1499), kanporatze bolada bat izan zen 1499 eta 1633 artean, non ijitoen harrera ahalbidetzen zuten aipatu dokumentuak ijito ibiltariak kanporatzeko emandako pragmatikek ordezkatu zituzten.



Hortaz, Erdi Aro-Aro Modernorako atal-bidaia honetan, bi ideia azpimarratu nahi ditugu:

1.- XV. mendean ijitoak Iberiar penintsulara iritsi ziren garaia islatu, Ijito Herria gure jendarteko zati duela sei mende dela erakusten duena.

2.- Adierazi lehenengo unean biztanleria honi harrera ona egin zitzaiola, uste baitzen erromesak zirela, eta ibiltzeko baimenak eman zitzaizkiela (garai hartako formula legala, erromesaldi horiek egiteko baimena ematen ziena). Halere, ijitoek ez zutenez garaiko ohitura eta lege zorrotzen mende egon nahi, euren formulak zituztelako, ijito biztanleriak gatazkak izan zituen bai nekazariekin, bai tokiko Justizia administrazioekin, baita errege-makineriako goragoko instantziarekin ere, haien erabateko mendekotasunera edo herrialdetik kanporatzera bideratutako hainbat pragmatika eragin zituztenak.

Bigarren bidaian, gure protagonistak XVIII. mendearen erdialdera joango dira, jauregiak azpikoekin testuinguru batera, Fernando VI.aren jesuita konfessore Aita Frantzisko Rávagoren eta Badiako Markesaren artean bilera sekretu bat egiten ari zen unera.

Beste behin ere, benetan jazotako gertakizunetatik fikziozko atal bat sortzen dugu irakurlearengan jakin-mina pizteko, ondoren gaiaren inguruko azterketa sakonagoa egiteko balioko diona. Elizgizona zein Markesa benetako pertsonaiak dira, izan ere, lehenaren ardura izango baita Elizak baimena ematea ijitoak beren burua babesteko ezkutatzaren toki sakratuetan atxilotu ahal izateko, hala nola bere errege-penitentearen kontzientzia arintzea Badiako Markesa prestatzen ari den planaren inguruko edozein zalantza edo eskrupuluri dagokionez. Plan hori ijitoak sarraskitzea zen, eta 1749ko egun zehatz batean gauzatu behar zen Sarekada Handi baten bidez. Gertakizun hori, egun ia ahaztua eta historialariek oso gutxi aztertua, Ijitoen Espetxeratze Orokorra gisa ere ezagutzen da, Fernando VI.a Erregeak baimendutako jazarpena, Badiako Markesak isilpean antolatua, Espainiako lurralde osoan modu sinkronizatuan hasi zena 1749ko abuztuaren 30ean, asteartean, erresumako ijito guztiak, sexu, egoera, adin bereizketarik edo inolako babeslekurekiko erreparorik gabe, atxilotzeko eta azkenean erailtzeko helburu adieraziarekin. Azkenean, atxiloteta masiboa egin zen armategietan eta bestelako atxiloteta-zentroetan, 1763an Karlos III.a Erregeak, Badiako Markesa zoritxarrean eroria eta hainbeste preso eduki ezinda, indultu orokorra eman zuen arte. Horrek ez du esan nahi, dena den, ondoren ez zirela ijito biztanleriaren kontrako legeria desberdinak onartu.

Garai Ilustratuan kokaturiko kapitulu honetan nabarmendu nahi diren ideiak ondokoak dira:

1.- Borboi-agintariek saiakera egin zutela, aurreko pragmatikak baliatuz, ijito biztanleria mendean hartzeko eta, bestela, janzkerarekin, ohiturekin eta lanbideekin loturiko errege-xedapen zorrotzak betetzen ez zituzten ijito guztiak erailtzeko.



2.- Ilustrazioa bezalako garai batean jazotako eta gutxi azterturiko gertakari bat ezagutzea, izan ere, Ilustrazioko idealak, giza arrazoiak ezjakintasunari, sineskeriari eta tiraniari aurre egiteko ahalmena zuela defendatzen zutenak, mundu hobea eta berdintsuagoa eraikita, kontraesan nabarmenean sartu baitziren xedapen mota horiekin.

Laugarren atalean, Espainiako Gerra Zibilaz eta II. Mundu Gerraz diharduena, Miguel eta Nekane irudimenaren mende jarriko dira lehenbizikoaren aitonaren oroitzapenak entzun ahala.

Lau orrialde eskasetan ibilbide bat egiten da 1936ko Irun hiribilduan zehar, Hendaiarako mugarobidean zehar, eta aipamenak egiten zaizkie anaia-arreben arteko gerran zenbait ijitok jasandako zoriari eta gerran paper garrantzitsua jokatu zuten hainbat ijitori. Helios Gómez nabarmen daiteke, Alderdi Komunistaren buruzagi ezaguna eta oste anarkistetan ere egon zena; hark utzitako legatua ez da soilik herentzia politiko gisa geratu, baita grafikoa ere, ilustratzaile ezaguna izan baitzen, eta bere obra liburu batean jasota dago (ikus: URSULA TJADEN: Helios Gómez. Artista de Corbata Roja, Txalaparta, Tafalla, 1996 eta Unitate Didaktiko honen ERANSKINAK, Helios Gómezen biografia).

Donostiako Alderdi Ederren historia liburu bat irakurtzen ari diren trantsizio baten ostean, II. Mundu Gerrara bidaiatzen dute, zehazki 1942ra, Hitlerrek Poloniako Auschwitz kontzentrazio-esparruan erailak izan behar duten ijitoak hara bidaltzeko agindu zuen unera. Hildako ijito gehienek jatorria Erdialdeko Europan bazegoen ere, ahozko hainbat iturriri esker jakin izan da Espainiako gatazkatik ihesi zebiltzan zenbait ijitok XX. mendeko munduko bigarren gatazka harrapatuta ikusi zutela beren burua, eta, azkenean, kontzentrazio-esparru haietan bukatu zutela. Pentsa dezakegu gehienak euren ijito izaerari zegokionez oharkabean igarotzen saiatuko zirela, gas ganbera zen amaiera dramatiko hura ekiditearren. Mengele doktorea ere aipatzen da, ijitoen artean “Heriotzaren aingerua” ezizena irabazi zuena eta Auschwitz-Birkenau esparruko ofizial sendagilea zena.

“Doktore” honek esperimendu ugari egiten zituen gizakiekin, bikiak aukeratuta akuri nagusi gisa, eta haren biktimitako asko ijitoak izan ziren.

Atal honen amaiera gisa, lau ondorio edo ideia nagusi aipa ditzakegu:

1.- Gure ustez, premia urgentea dago gure historia egiteko orduan Ijito Herria kontuan hartzeko, areago 1936-39 gerra moduko hain gertakari garrantzitsuetan.

2.- Uste dugu garrantzitsua dela kontuan hartzea, datu historiko bezala, ijito biztanleria lege bidez 30eko hamarkadan hasi zela diskriminatua izaten Europako estatu askotan, “odolaren eta ohorearen babesa” bezalako





legeak edo Alemanian herritartasunaren galera aplikatuta. Bazterkeria egoera honek eragingo du hasieran ghettoetan eta ondoren kontzentrazio-esparruetan sartuak izatea.

3.- Europako ijitoak sarraskituak izateko zorian egon ziren Alemania Nazian, jazarritako beste kolektibo batzuk bezala; nazioartean, haien genozidioari Porrajmos esaten zaio, erromintxelez (hitzez hitz, “tripak aterata” esan nahi du).

4.- Gertakari tragiko hauek eta euren tamaina erraldoia ezagutzeak eraman ere eramaten gaitu adieraztera gertakari horiek apenas daudela islatuta historiaren azterketan esparru akademikoan.

## METODOLOGIA ETA BALIABIDEAK

Unitate didaktiko hau lantzeko, partaideei begira metodologia parte-hartzailea eta kritikoa pentsatu da. Gainera, ikasleen ikaskuntza esanguratsua bultzatuko duen hausnarketa eta elkarrizketa giroa eragin nahi da.

Jarduerak diseinatu dira bakarka zein kolektiboki garatuak izan daitezen, ikasleek iritzi kritikoa sor dezaten hizpide diren gaien buruz eta, horrela, gai izan daitezen euren iritzia eztabaidatzeko, jakinarazteko eta partekatzeke, taldearen aurrean, betiere ikasleen aurretiko ezagutzetatik abiatuta. Aurreiritzirik gabe, naturaltasun eta begirunez helduko diegu aipatuko ditugun aspektu kultural eta historiko guztiei.

Irakasleei unitate didaktiko hau garatzeko emango dizkiegun baliabideen baitan, “Miguel eta Nekane. Ijito herria historian” komikia, Irakaslearen gida eta jarduera-koadernoak daude. Ikastetxeak liburutegia eta Internetarako sarbidea jarri beharko ditu.

Jarduera-koadernoan aurkezten diren atazek ijito herriari buruz sakontzeko tresna izan nahi dute. Komikia ezagutza horretarako sarrera da, eta jarduerak, berriz, hausnarketa eta elkarrizketa kritikorako bitartekoa.

Komikia zein jarduerak testuinguru historikoen arabera daude multzokatuta: XV. mendea, Erdi Arotik Aro Modernoko trantsizioa; Ilustrazioaren Aroa; Gerra Zibila eta II. Mundu Gerra. Horietako bakoitza protagonistek, Miguel eta Nekane, zuhaitz magikoaren bidez egingo duten bidaia bat da.

Gure ustez, garrantzitsua da unitate didaktiko honen garapenerako eta komikia ulertzeko kontuan hartu



beharreko aspektu bi komentatzea. Batetik, beharrezkoa da hartzaileak izango diren ikasleek aurretiko ezagutza izatea aurkezten diren une historiko desberdinen inguruan. Bestetik, uste dugu beharrezkoa dela sarrera bat egitea hizpide izango diren gaiei buruz. Esaterako, jarduera giza eskubideekin lotuta badago, lehenengo ikasleek horiek zer diren, Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsala zergatik egin zen eta abar jakin beharko dute, edo aurreiritzi eta estereotipoei buruz mintzatuko bagara, zer diren, zein ezagutzen dituzten... horien inguruko sarrera egin beharko da.

Irakasleen informazio bilaketa, biografien sorkuntza, deserria, aurreiritziak, estereotipoak... bezalako kontzeptuei buruzko hausnarketa lanak errazteko, unitate didaktiko honi ijito herriari eta planteatzen dugun une

historiko bakoitzari buruzko bibliografia berezia erantsi zaio, hala nola informazioa dakarten zenbait eranskin, web-helbideak...

Gainera, jardueren atal bat sortu da ijito herriari buruz gehiago jakiteko, ez dena esplizituki "Miguel eta Nekane. Ijito herria historian" komikiko historiaren baitan kokatzen, baina ikasleak ijito herriarekin loturiko beste aspektu batzuen gainean hausnartzera eraman nahi dituen; esaterako, ijitoa nor den jakiteko ditugun kanonak, ijito herriak ere, guk euskara bezala, bere hizkuntza duela jakitea...

## UNITATE DIDAKTIKOAREN HELBURUAK

### HELBURU OROKORRAK

1. Gazteei ijito herriaren historia eta kultura aurkeztea.
2. Harremanak ezartzea ijito kulturaren eta gure inguruan dauden beste batzuen artean.
3. Beste kultura batzuekiko begirune eta tolerantzia jarrerak sustatzea eta garatzea.
4. Ijito kulturarekiko ditugun aurreiritziak eta estereotipoak lantzea.

### HELBURU ZEHATZAK

1. Antzekotasunak eta aldeak bilatzea ijito kulturen eta ijito ez direnen tradizioen artean.
2. Aktiboki parte-hartzea gaiari buruzko elkarrizketa, hausnarketa eta bateratze-lanetan.
3. Ijito herriaren idatzi gabeko historiaren inguruan ikertzea.
4. Tradizio eta kultura desberdinak baloratzea eta errespetatzea.
5. Gure kulturari ditugun tradizio eta ohiturei buruz hausnartzea.



## UNITATE DIDAKTIKOAREN ETA DBH-KO CURRICULUMAREN ARTEKO LOTURA

Unitate hau tutoretzetan lantzeko dago diseinatuta, baina baita Gizarte Zientziak, Geografia eta Historia ikasgaien ere.

Unitate honen bidez jorra daitezkeen helburu eta edukiak ondokoak dira:

### Helburuak

1.– Fenomeno sozialak eta egitate politiko, ekonomiko eta kulturalen arteko harremanak zuzentzen dituzten prozesu eta mekanismoak ezagutzea, ezagutza hori baliatuta egungo jendartearen bilakaera azaltzen duen arrazoi aniztasuna eta gizon-emakumeek haietan betetzen duten papera ulertzeko, Historiaren ikuspegi zabal eta kritikoa erdiesteko helburuarekin.

2.– Denbora eta espazioan munduko eta Europaren Historiako prozesu eta gertakari garrantzitsuenak ezagutzea eta kokatzea, Gizateriaren bilakaeraren ikuspegi osoagoa eskuratzeko eta norberaren gizarte-komunitateen izaera anitzaren sorburuaren ulermena erraztuko duen interpretazioa egiteko.

3.– Taldeka atazak egitea eta egungo errealitate sozialari buruzko eztabaidetan parte hartzea, jarrera aktibo, eraikitzaile, kritiko eta tolerantarekin, talde-laneko teknikak eta gizarteratze positiboa eueganatzeko, iritziak egokitasunez arrazoituta eta elkarrizketa pertsonen eta jendartearen arazoen konponbiderako beharrezko bide gisa baloratuta.

4.– Nork bere burua pertsona bakar eta konplexu gisa onartzea, besteei dagokienez nork bere ezaugarriak eta akatsak ezagututa, bere konplexutasunean euskal jendarteko kide gisa bereizten duten ezaugarri kulturalak baloratuta eta bateragarri eginda beste talde batzuetakoa eta oro har giza generokoa delako ustearekin, tolerantzia eta begirunezko jarrerak hartuz jendarte baten eraikuntzan aktiboki parte hartzeko modu gisa.

5.– Aniztasun kulturala herriek eta banakoek beren nortasuna izateko eskubide gisa baloratzea, norbera kide den gizarte- eta kultura-komunitateen aniztasuna horietan aktiboki parte hartzeko modu bezala beste kulturekiko tolerantzia eta errespetu jarrerak hartuta.

6.– Jendarte garaikideetan dauden arazo larrienak eta hauen sustrai historiko-sozialak aztertzea eta ezagutzea horien gainean nork bere judizio kritiko eta arrazoitua landu ahal izateko eta pertsonen eta talde sozialen arteko harremanak hobetzeko egokituriko jardunbideak sustatzea eta horiei ekitea.



7.– Ahozko informazioa, grafikoa, ikonikoa, estatistikoa eta kartografikoa zorroztasunez bilatu, hautatu eta lotzea,

iturri desberdinetatik eratorritako informazioa, ingurune fisiko eta sozialak, hedabideek eta informazio eta komunikazioaren teknologiek ematen dutena barne, lortutako emaitzak gainerako pertsonei modu antolatuta eta ulergarrian jakinarazteko.

8.– Jendarte demokratikoen antolaketa-egiturak eta funtzionamendua ezagutzea, haien oinarri diren funtsezko balio eta printzipioak kontuan hartuta, hala nola eskubide eta askatasunak lorpen ukaezin eta bakerako nahitaezko baldintza gisa, berauetan partaidetza kontziente, arduratsu eta kritikoa eragiteko, jarrera eta egoera diskriminatzaile eta injustuak salatuz eta elkartasuna agertuz beren eskubideak edo beharrezko baliabide ekonomikoak zanpatuta dituzten herri, talde sozial eta pertsonei.

## Edukiak

### Lehenengo Maila. 1. Blokea: Eduki komunak

- ▮ Aspektu geografiko, historiko, kulturalen eta abarren gaineko hipotesien planteamendua, adierazpena eta egiaztatpena.
- ▮ Jarraibideak bakarka edo taldeka eskuraturiko informazioaren idatzizko lanketarako (laburpen, sintesi, lan monografiko, koadro konparatibo, txosten, ikerketa lan txikien eta abarren plangintza eta gauzatzea).
- ▮ Jarraibideak ahoz edo idatziz hainbat lanen emaitzen berri emateko (monografikoak, konparatiboak, ikerketa lanak eta abarrak), bakarka edo taldean eta euskarri desberdinak erabiliz, horien artean digitala.
- ▮ Jarraibideak aldiak, kulturak eta zibilizazioak, gertakari historikoak, datuak eta lekuak denboran eta espazioan kokatzeko.
- ▮ Jendarte historikoen eta egungoen arteko aldeak eta antzekotasunak ezagutzeko, aztertze eta konparatzeko teknikak.
- ▮ Jarraibideak gertakari historikoen arrazoi anitzeko izaeraren azterketarako: gertakari historikoen eta bilakaera eta aldaketa prozesuen arrazoi eta ondorioen ezagutza, sortu zituzten faktoreekin erlazionatuta.



- ▮ Jarraibideak artelan mota desberdinak dagokien testuinguruan irakurtzeko eta interpretatzeko.
- ▮ Iraganeko errealitate sozialaren gaineko interesa eta jakin-mina eta jarrera kritikoa gertakari historikoen aurrean.

#### Bigarren Maila. 1. blokea. Eduki komunak.

- ▮ Aspektu demografiko, historiko, kulturalen eta abarren gaineko hipotesien planteamendua, adierazpena eta egiaztatpena.
- ▮ Jarraibideak bakarka edo taldeka eskuraturiko informazioaren idatzizko lanketarako (laburpen, sintesi, lan monografiko, koadro konparatibo, txosten, ikerketa lan txikien eta abarren plangintza eta gauzatzea) eta eskuraturiko emaitzak ahoz jakinarazteko.
- ▮ Jendarte historikoen eta egungoen arteko aldeak eta antzekotasunak ezagutzeko, aztertze eta konparatzeko teknikak.
- ▮ Jarraibideak gertakari historikoen arrazoi anitzeko izaeraren azterketarako: gertakari historikoen arrazoi eta ondorioen ezagutza, haien jatorria bereizita eta gertakari sozialetan aniztasun kausala identifikatuta.
- ▮ Jarraibideak alde kulturalen azterketarako.
- ▮ Jarraibideak gaur egungo gertakari edo egoera esanguratsu batekin loturiko Erdi Aroko edo Aro Modernoko aspekturen baten azterketarako.
- ▮ Iraganeko errealitate sozialaren zein egungo gure jendartearekin daukan loturaren gaineko interesa eta jakin-mina, eta jarrera kritikoa gertakari historikoen aurrean.
- ▮ Enpatia historikoa egikaritzea eta iraganaren eta orainaldiaren arteko loturen ezarpena.
- ▮ Adierazpen kulturalen aniztasun eta aberastasuna baloratzea eta errespetatzea.
- ▮ Euskal Herriko hizkuntza- eta kultura-aniztasuna aberastasun kolektiboaren faktore gisa onartzea.
- ▮ Euskal jendartean sartzan ari diren beste kultura batzuetako talde eta pertsonen onarpena eta haiekiko errespetu, enpatia eta elkartasuna, aniztasuna aberastasun gisa baloratuta.

#### Hirugarren Maila. 1. blokea. Eduki komunak.



- ▮ Eskuraturiko informazioaren ahozko edo idatzizko jakinarazpen egoki eta arrazoitua.
- ▮ Jarraibideak ikerketa edota sintesi lan monografikoak egiteko, hainbat iturritatik ateratako informazioa erabiliz eta berauek zuzen aurkeztuz, adierazpen forma ezberdinak uztartuz, informazio eta komunikazioaren teknologiek ematen dituzten aukerak barne.
- ▮ Jarrera kritikoa garapenaren banaketa desberdinaren aurrean eta munduko pertsona eta herrien arteko desberdintasunen mespretxua.
- ▮ Elkartasuna herri kaltetuenekin. Egungo munduko pertsona eta kolektiboei eragiten dieten berdintasun eza, injustizia eta diskriminazio egoeren salaketa.

#### Laugarren Maila. 1. blokea. Eduki komunak.

- ▮ Gertakari eta prozesu historiko garrantzitsuenak denboran eta espazioan kokatzea.
- ▮ Jarraibideak dokumentu historikoen moduko irudien azterketarako eta errealitatea interpretatzeko. Film dokumental edota fikziozkoak ikustea eta horiek iturri historiko gisa baloratzea.
- ▮ Jarraibideak aldaketa historiko prozesuetan esku hartzen duten faktoreak ezagutzeko eta arrazoiak eta ondorioak bereizteko.
- ▮ Azalpen historikoaren arrazoi anitzeko izaeraren azterketa.
- ▮ Prozesu historikoetan esku hartzen duten osagai ekonomiko, sozial, politiko eta kulturalen ezagutza eta haien artean gertatzen diren harremanen ulerkuntza.
- ▮ Jarraibideak iturri dokumentaletatik informazioa bilatzeko, hautatzeko eta eskuratzeko, objektibotasun eta egokitasun irizpideen arabera, gertakariak eta iritziak eta lehen mailako iturriak bigarren mailakoetatik bereizita. Gertakari edo egoera berari dagokionez informazio kontrajarri edota osagarrien kontrastea. Garrantzi bereziko testu historikoen azterketa eta lanketa.
- ▮ Jarraibideak ikerketa edota sintesi lan monografikoak egiteko, hainbat iturritatik ateratako informazioa erabiliz eta berauek zuzen aurkeztuz, adierazpen forma ezberdinak uztartuz, informazio eta komunikazioaren teknologiek eta ikus-entzunezkoek ematen dituzten aukerak barne.



- ▮ Egoera bidegabekiko ikuspegi kritikoa barneratzea eta elkarrizketa eta bakea bilatzea gatazkak konpontzeko.
- ▮ Etorbizunaren eraikuntzan oroimen historikoaren funtzioa baloratzea.
- ▮ Iraganeko errealitate sozialaren zein egungo gure jendartearekin daukan loturaren gaineko interesa eta jakin-mina, eta jarrera kritikoa gertakari historikoen aurrean.
- ▮ Giza eskubideen balorazioa eta edozein bidegabekeria, diskriminazio, mendekotasun edo genozidio formaren mespretxua.

## BIBLIOGRAFIA

### BIBLIOGRAFIA OROKORRA:

- ▮ BORROW, G.: Los Zincafi. Los gitanos en España. Londres: John Murray, 1841 (red. de Portada Editorial, Sevilla, 2001)
- ▮ GÓMEZ ALFARO, A.: "Gitanos: la historia de un pueblo que no escribió su propia historia". Hemen: Los marginados en el mundo medieval y moderno : Almeria, 1998ko azaroaren 5etik 7ra, 79-88 or.
- ▮ LEBLON, B.: Los Gitanos de España. El precio y el valor de la diferencia. Bartzelona: Gedisa Editorial, 1987

### LEHENENGO BIDAIA (ijitoen iritsiera Erdi Aroa – Aro Modernoa):

- ▮ MENA CABEZA, I. R.: Gitanos en la Edad Moderna. Una minoría entre la asimilación y la exclusión. Hemen: Marginados y minorías sociales en la España moderna y otros estudios sobre Extremadura. 2006, 147-162 or.
- ▮ SÁNCHEZ ORTEGA, M. H. : "Los gitanos españoles desde su salida de la India hasta los primeros conflictos en la península". Hemen: Espacio, tiempo y forma. IV. saila, Historia modernoa. 7. zenb., 1994, 319-354 or.

### BIGARREN BIDAIA (Ilustrazioa):

- ▮ GOMEZ ALFARO, A.: La gran redada de gitanos. Madril: Presencia Gitana, 1993.



▮ ZOIDO NARANJO, A. :La ilustración contra los gitanos. Antecedentes, historia y consecuencias de la prisión general. Sevilla: Signatura Ediciones, 2009.

▮ SANCHEZ ORTEGA, M.H. : Documentación selecta sobre la situación de los gitanos españoles en el siglo XVIII. Madrid: Editora Nacional, 1976.

#### HIRUGARREN BIDAIA (Gerra Zibila eta II. Mundu Gerra)

▮ HANCOCK, I.: Ijitoen genozidioa Holokaustoan. Hemen: I Tchatchipen, 30. zenb., 2000, 13-16 or.

▮ MARTÍN SÁNCHEZ, D.: Los gitanos y la guerra civil española. Hemen: Congreso La Guerra Civil Española 1936 – 1939. Oroipen Kulturalen Estatuko Elkarteak [argitalpen elektronikoa], 2006.

▮ RODRÍGUEZ PADILLA, E. eta FERNÁNDEZ FERNÁNDEZ, D.: Mujeres gitanas represaliadas en la provincia de Granada durante la guerra civil y la posguerra (1936-1950). Arraez Editores, Mojacar, 2010.

▮ VV.AA.: El Pueblo Gitano en la guerra civil y la posguerra. ROMI Emakume Ijitoen Elkarteak. Granada, 2009.

#### IJITOEEN HISTORIA EUSKAL HERRIAN:

▮ ALIZIA STÜRTZE: Agotak, Juduak eta Ijitoak Euskal Herrian, Bilbo: Txalaparta, 1988.

▮ BERRAONDO, B. de: “El euskera de los gitanos”. Hemen: Euskal-Esnalea. Año. Año 220, 1921, 195-198 or.

▮ GOROSÁBEL, P. de: “Noticia de las cosas memorables de Guipúzcoa”, I. liburukia, Bilbo: La Gran Enciclopedia Vasca, 1972, 269- 276 or.

▮ MARTÍN SÁNCHEZ, D.: “La Prisión General de los Gitanos durante el siglo XVIII en Errentería y la comarca de Oarsoaldea”. Hemen: Oarso. 46. zenb., 2011.

▮ RILOVA JERICÓ, C., Memoria del proyecto para la recuperación de fuentes documentales históricas del Pueblo Gitano en el País Vasco. Gasteiz: Kultura Saila, 2007.





#### ERROMANTXERA LANTZEKO:

- ▮ CAMPUZANO, RAMÓN: Origen, usos y costumbres de los jitanos y diccionario de su dialecto. Madril, 1848. Fakkberrargit. Madril, Heliodoro, 1980.
- ▮ DÁVILA, BARSALY eta PÉREZ, BLAS: Apuntes del dialecto caló o gitano puro. 1. argit. 1943. Cadizko Unibertsitateko Faksimile-edizioa, 1991. 174 or.
- ▮ GÓMEZ ALFARO, ANTONIO: “Diccionarios de la Lengua Romani”. Hemen: Interface 28, 29, 30 (1997tik 1998ra). Université René Descartes. Paris.
- ▮ JIMÉNEZ, AUGUSTO: Vocabulario del dialecto jitano. Sevilla, 1846. Badago beste argitalpen bat Asociación de Libreros de Viejo elkartearena. Sevilla. 111 or.

Prorrajmos filmerako esteka: <http://www.agifugi.org/ijito-memoria-memoria-hist%C3%B3rica-gitana/>



## ERANSKINAK

### 1. ERANSKINA: DEFINIZIOAK

**ESTEREOTIPO:** Talde edo jendarte batek izaera aldaezinarekin eskuarki onarturiko irudi edo ideia.

Estereotipo bat talde edo jendarte batek eskuarki onarturiko irudi edo ideia bat da, izaera aldaezina duena. Jatorrian, inprentan eredu originalaren ordezkari berunezko molde batetik harturiko inpresio bat izendatzen zuen berba honek. Aplikazio hori metafora bihurtu zen batetik bestera aldaketarik gabe eraman zitezkeen aurrezarritako ideien multzo bati zegokionez.

Egungo erabilerarik ohikoenean, estereotipoaren kontzeptuak ezaugarri bereizgarri jakin batzuk partekatzen dituen jende talde baten inguruko irudi mental sinplifikatuari eta xehetasun urrikoari egiten dio erreferentzia. Zentzu negatibo edo iraingarrian erabili ohi da, eta uste da estereotipoak hezkuntzaren bidez alda daitezkeen uste ilogikoak direla.

**AURREIRITZI:** 1. Aurreiritzeko ekintza eta horren ondorioa. 2. Aurretiko iritzi irmoa, oro har txarra, gutxi ezagutzen den zerbaiten inguruan.

Aurreiritzia, aurreiritzeko ekintza eta horren ondorioa da (gauzen inguruko iritzia erabateko ezagutza izan gabe edo dagokion unean baino lehen ematea). Aurreiritzi bat, beraz, gutxi edo gaizki ezagutzen den zerbait buruzko aurretiko iritzia da.

Aurreiritziak, ebidentzien zehaztapena epaitu aurretik sorturiko iritzietan oinarrituta egiten dira. Bestela esanda, aurreiritzi bat arrazoitzeko aurretiko elementu nahikoak izan gabe egiten den kritika da. Frantziara inoiz joan ez den pertsona batek baieztatuko balu frantsesak ez direla maitekorrak eta hartu-emanean urrunak direla, aurreiritzi bat agertu eta estereotipo bat errepikatuko luke.

Pentsaera mota hauek diskriminazioarekin lotuta daude. Aurreiritziak negatiboak izan ohi dira (zerbait edo norbait mespretxatzen da, arrazoiekin epaitzeko ezagutza nahikoa izan aurretik) eta pertsonen arteko zatiketa sustatzen dute: pertsona batek uste badu beste bat gaiztoa dela, ez da harengana hurbilduko, ezta hura ezagutu eta bere ustea egiaztatzeko ere.

**DESERRI:** 1. Deserriratzeko edo nor bere burua deserriratzeko ekintza eta ondorioa. 2. Norbait leku edo



lurralde zehatz batetik kanporatzeko zigorra, aldi baterako edo betiko bertatik kanpo bizi dadin. 3. Zigor hau betetzen den denbora-epaia. 4. Deserriratu bizi den herri edo lekua. 5. Leku urrundu, urrun edo iristeko zaila.

Iturriak:

Espainiako Erret Akademia.

<http://definición.de>

## 2. ERANSKINA: GIZA ESKUBIDEEN ADIERAZPEN UNIBERTSALA

Zer dira giza eskubideak?

Giza eskubideak gizaki guztiok berezko ditugun eskubideak dira, nazionalitate, bizitoki, sexu, jatorri nazional edo etniko, kolore, erlijio, hizkuntza edo beste edozein ezaugarriren inolako bereizketarik gabe. Denok ditugu giza eskubide berberak, inolako diskriminaziorik gabe. Eskubide horiek elkarren artean lotuak, elkarren mendekoak eta zatiezina dira.

Giza eskubide unibertsalak sarri legean jasoak eta legeak bermatuak izaten dira, itunen, nazioarteko ohiturazko zuzenbidearen, printzipio orokorren eta nazioarteko zuzenbideko beste iturri batzuen bidez. Giza eskubideen nazioarteko zuzenbideak gobernuak egoera jakin batzuetan neurriak hartzeko edo beste egoera batzuetan modu jakin batean ez jokatzeko dauzkaten betebeharrak ezartzen ditu, banakoen edo taldeen funtsezko giza eskubide eta askatasunak sustatzeko eta babesteko helburuarekin.

Nortzuk izan ziren Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalaren idazketan lagundu zuten pertsonaia nagusiak?

Eleanor Roosevelt (Amerikako Estatu Batuak), René Cassin (Frantzia), Charles Malik (Libano), Peng Chun Chang (Txina), Hernán Santa Cruz (Txile), Alexandre Bogomolov/Alexei Pavlov (Sobietar Batasuna), Lord Dukeston/Geoffrey Wilson (Erresuma Batua), William Hodgson (Australia) eta John Humphrey (Kanada).

Historia

Historia osoan, gatazkak, gerra edo herri-altxamendu forman, trataera ankerraren aurreko erreakzio gisa sortu dira sarri. 1689ko Eskubideen Adierazpen ingelesa, gerra zibil ingelesaren ostean idatzia, herriaren demokrazia nahitik sortu zen. Zehazki mende bat beranduago, Iraultza Frantsesak Gizonaren eta Herritarraren Eskubideen Adierazpena eta bertan jasotako denon berdintasunaren aldarrikapena eragin zituen. Baina, askoren ustez, Ziroren Zilindroa da giza eskubideen aldeko lehenbiziko dokumentua; berau, K.a. 539. urtean eman zuen ezagutzera Persiako (antzinako Iran) Akemenstar Inperioko Ziro Handiak, Babilonia konkistatu ondoren.



Bigarren Mundu Gerraren eta Nazio Batuen sorkuntzaren ondoren, nazioarteko komunitateak konpromisoa hartu zuen gatazka hartako basakeriak ez zitezen berriz sekula gertatu. Munduko buruzagiek erabaki zuten Nazio Batuen Gutuna pertsona guztien eskubideak edozein tokitan eta uneoro bermatzeko ibilbide-orri batekin osatzea.

Beranduago Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsala bihurtuko zen dokumentua Batzar Nagusiaren saioen lehenengo aldiari aztertu zen, 1946an. Batzarrak, funtsezko giza eskubide eta askatasunei buruzko adierazpen proiektu hura aztertu eta Batzorde Ekonomiko eta Sozialari aditzera eman zion honek Giza Eskubideen Batzordeari jakinaraz zieziaion, bertako kideek giza eskubideen nazioarteko gutunaren prestaketaren baitan azter zezaten. Batzordeak, bere saioen lehenbiziko aldiari, 1947. urtearen hasieran, baimena eman zion bere Mahaiari "Giza Eskubideen Nazioarteko Gutunaren aurreproiektua" izendatu zuena idazteko. Ondoren, lan hori idazketa Batzorde batek hartu zuen bere gain, zortzi estatutik etorritako Batzordekideek osatzen zutena, banaketa geografikoa egokitasunez kontuan hartuta hautatu zirenak.

Giza Eskubideen Batzordea politika, kultura eta erlijio prestakuntza desberdina zuten 18 kidek osatu zuten. Eleanor Roosevelt Andrea, Franklin D. Roosevelt Estatu Batuetako Presidentearen emaztea, izan zen Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalaren Idazketa Batzordeko mahaiburua. Haren ondoan, René Bassin Jauna, Frantziakoa, Adierazpenaren lehen proiektua idatzi zuena, Batzordeko Kontalaria, Charles Malik Jauna, Libanokoa, Txinako Presidenteordea, Peng Chung Chang Jauna, eta John Humphrey Jauna, Kanadakoa, Adierazpenaren kopia prestatu zuena, egon ziren. Baina denek onartzen zuten Roosevelt Andrea zela adierazpenaren onarpenaren sustatzailea.

Batzordea 1947an bildu zen lehenbizikoz. Bere memorietan, Roosevelt Andreak ondokoa idatzi zuen garai hura gogoan:

"Chang Doktorea pluralista zen eta modu xarmagarrian esaten zuen azken errealitate mota bat baino gehiago zegoela. Adierazpenak, zioen, mendebaldeko ideiak baino ez direnak ez ezik, beste batzuk ere islatu beharko lituzke eta Humphrey Doktoreak irizpide eklektikoa aplikatu beharko luke. Iruzkina, Humphrey Doktoreari zuzendu arren, Malik Doktorearentzat zen benetan, eta honek azkar erantzun zuen Tomas Akinokoaren filosofia zehatz-mehatz azalduz. Humphrey Doktorea gogotsu batu zitzaion eztabaidari, eta gogoan dut une jakin batean Chang Doktoreak iradokitu zuela agian komenigarria litzatekeela Idazkariak hainbat hilabetez konfuzianismoaren oinarriak ikastea".

Cassin Jaunak idatzitako behin betiko bertsioa Giza Eskubideen Batzordeari eman zitzaion, Genevan zegoena saioak egiten. Oharrak egin zitzaion Nazio Batuetako Estatu Kide guztiei igorri zitzaion adierazpen proiektua, Genevan idatzitako testua bezala ezagutu zen.



Lehenengo Adierazpen proiektua 1948ko irailean proposatu zen, eta 50 estatu Kidek baino gehiagok hartu zuten parte behin betiko idazketan. 217 A (III) ebazpenean, 1948ko abenduaren 10ekoa, Batzar Nagusiak Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsala onartu zuen Parisen. Zortzi nazio abstenitu egin ziren bozketan, baina inork ez zuen kontrako botorik eman. Idazketa Azpibatzerdeko kide Hernán Santa Cruz Jaunak, txiletarra bera, zera idatzi zuen: “Argi hauteman nuen benetan garrantzitsua zen gertakizun historiko batean parte hartzen ari nintzela, non adostasuna lortu zen gizakiaren balio gorenari dagokionez, aldi baterako botere baten erabakian ez eta existitzeko ekintzan beran sorturiko balio bat -gabezia eta zanpaketarik gabe bizitzeko eta nork bere nortasuna erabat garatzeko eskubide besterenezina eragin zuena. Areto Handian... benetako elkartasun eta anaitasun giroa zegoen latitude guztietako gizon eta emakumeen artean, ez dudana berriz ikusi inongo nazioarteko agertokitan”.

Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalaren testu osoa bi urtean baino gutxiagoan idatzi zen. Mundua oraindik ekialdeko eta mendebaldeko bloke banatan zatitua zegoen une hartan, dokumentuaren funtsa izango zenari buruzko eremu komuna aurkitzea eginkizun izugarria izan zen.

Iturriak

[www.ohchr.org](http://www.ohchr.org) (NBEren web ofiziala)

[www.un.org/es/](http://www.un.org/es/) (Nazio Batuen web-gunea)

### 3. ERANSKINA: BIOGRAFIK

#### HELIOS GÓMEZ

1905ean jaioa, Sevillako Triana auzoan, hain zuzen, profesionalki zeramika dekoratzaile lanbidea ikasiz prestatu zuen bere burua Sevillako La Cartuja lantegian, eta hiri bereko Arte eta Ofizioen Eskola Industrialean ere ikasi zuen. Bere lehen obrak Páginas Libres egunkari anarkistan agertu ziren eta, era berean, Sevillan idazleen obrak ilustratzen ibili zen, esaterako, Rafael Laffon eta Felipe Alaizenak. 1925ean, lehenbiziko aldiz egin zuen erakusketa bat hiriburu andaluziarreko Kursaalaren. Eta, urtebete beranduago, Madrilgo Ateneoan eta Bartzelonako Dalmau Galerian. Aldaketa politikoaren beharraz erabat ziur, talde anarkistei atxiki zitzaie, eta, lehen unetik, printzipio beraren arabera hitz egitea, margotzea eta idaztea erabaki zuen, bere hautu politikoarekin bat eginda.

Jean Cassouren hitzetan, iraultzaile izateagatik zen artista eta artista izateagatik iraultzaile. 1927an, herrialdea arrazoi politikoengatik uztera behartuta, Parisen erbesteratu zen, eta handik Sacco eta Vanzettiren exekuzioak zirela-eta protestatzeko ekitaldietan parte hartzeagatik kanporatua, Bruselara joan zen bizitzera. Han,



erakusketak egiten eta dekoratzaile lanetan ibili zen eta Max Deauvilleren *Rien qu'un homme* obra ilustratu zuen. 1928an, Amsterdam, Viena eta Berlinera bidaiatu zuen, eta, bi hilabetez, Sobietar Batasunean egon zen. 1929an, Berlinen jarri zen bizitzen eta han erakusketak egin zituen, zenbait argitalpenetan kolaboratu zuen, *Berliner Tageblatt*-en, kasu, eta tipografia eta interiorismo ikastaroak egin zituen. 1930. urtearen hasieran, Nazioarteko Lan Erakundeak (NLE) bere lehenbiziko bilduma argitaratu zuen Berlinen: *Días de ira*.

Primo de Riveraren diktadura ostean, 1930. urtearen bukaeran, Helios Bartzelonara itzuli zen eta aldizkari errepublikano eta komunista ugarian kolaboratu zuen, esaterako, *L'Opinió*, *La Rambla*, *La Batalla*, *L'Hora*, *Bolívar* eta *Nueva España*-n, eta liburuen azal eta ilustrazioak egin zituen, funtsean ezkerreko organoentzat. Urte hartan argitaratu zuen *Por qué me marcho del anarquismo* manifestua, eta Federazio Komunista Katalan-Balearrean sartu zen, baita BOC-en (*Bloc Obrer i Camperol*) ere, baina hortik apur bat beranduago kanporatu zuten. 1931n, PCE-n sartu zen, eta ilustratzaile lanetan kolaboratu zuen *Mundo Obrero*-n. 1932an bere militantziagatik Madrilen atxilotuta, kartzelatu eta Jaengo presondegira eraman zuten. Behin-behineko askatasuna lortu eta Bruselara joan zen ihesi. Han, Borinageko meatzarien greba handietan egon zen eta marrazki bat argitaratu zuen *Drapeau Rouge*-n, urrian SESBera abiatu aurretik VOKS-ek Artista Proletarioen Nazioarteko Kongresuan ordezkari espainiar gisa parte hartzera egindako gonbidapenari erantzuteko. Herrialde hartan egon zen bizitzen 1934ko otsailera arte, Moskun, hain zuzen, eta Leningrad eta Siberiara bidaiatu zuen, Pushkin Museoan erakusketa bat egin zuen 1933an eta Artearen Estatuko Argitaletxeak bere bigarren bilduma argitaratu zuen: *Revolución Española*. Bere obran elementu abstraktuak marrazteari utzi eta errealismo txundigarria bilatzen hasi zen, irakurterraza eta eduki sozial handikoa, beti kritikatu zuen errealismo sozialistatik urrunduta. Bartzelonara 1934ko udaberrian itzuli zen, baina berriz atxilotu zuten udazkenean Kataluniako langileen altxamenduaren testuinguruan; behin askatuta, Bruselara itzuli zen, non 1936. urtearen hasieran 1934ko gertakarien inguruko bere hirugarren bilduma argitaratu zen: *Viva Octubre*.

1935ean, Els Sis taldea sortu zuen beste artista batzuekin batera, eta 1936an, ezkerreko erakundeak berriz legeztatuta, Marrazkilari Profesionalen Sindikatua, gerran kartelgintza militantea sustatu eta kartel anarkista eta errepublikano asko eta asko egingo zituena. Era berean, argitalpen ugarentzat marraztu zuen, baita gerrari buruzko koadroak margotu ere. Gerra Zibilaren hasieran, barrikadetan borrokatu zuen Bartzelona defendatzeko, eta Aliança d'Intellectuals Antifeixistes de Catalunyaari atxiki zitzaion. UGT-ko Komisario Politiko izendatuta, Ramón Casanellas Zutabea antolatu zuen, Bayo espedizioarekin ontziratu zen Eivissa eta Mallorca askatzeko eta Aragoi, Madril eta Andaluziako fronteetan parte hartu zuen. 26. Dibisioko Kultura Milizianoa, El Frente egunkariaren goiburu eta maketazio arduraduna izan zen, hala nola Bartzelonan Durruti omentzeko erakusketaren antolaketaren arduraduna.

Gerra galduta, Frantzia babestu zen, non Argelés-sur-mer, Bram, le Vernet d'Ariège eta Djelfako (Aljeria) kontzentrazio-esparruetan sartu zuten 1939ko otsaila eta 1942ko maiatza artean.



1942an, Bartzelonara itzuli zen eta LNR (Askapen Nazional Errepublikanoa) talde iragankorra eta Andaluziako Etxea sortu zituen. 1948an, erakusketa bat aurkeztu zuen Arnaiz Galerian izaera surrealistako obrekin, eta, bere azken urteetan, mural apaingarriak egin zituen, Jazz Colón eta Bartzelonako San Jaime Egoitzakoak, kasu. 1945-46 eta 1948-54 urteen artean, atxilotua eta Bartzelonako Modelo presondegian kartzelatua izan zen, non La Capilla Gitana izenarekin ezaguna den oratorio bat margotu eta corpus poetiko bat konposatu zuen. 1950ean askatzeko agindua izenpetu bazen ere, beste 4 urtez eduki zuten preso, eta bi urte beranduago, 1956an, hil zen Bartzelonan.

Iturria:

Asociación Cultural Helios Gómez, Bartzelona ( [www.heliosgomez.org](http://www.heliosgomez.org) )

## WILHELM REICH

Irudi enblematikoa izan zen, bere ibilbide zientifiko eta politiko osoan etengabe jazarria eta mespretxatua. Medikua, judua, komunismoaren eta teoria psikoanalitikoaren aldekoa, jazarpen latza jasan zuen arrazoi horienengatik guztiengatik.

1897ko martxoaren 24an jaioa, Dobrzynican, Galiziako eskualdean, haurtzaroa Jujinetzeko baserri batean igaro zuen, Bucovinian, guztiak Inperio Austrohungariarrarenak, horregatik uste da Reich austriarra zela jaiotzez eta estatubatuarra 1938tik aurrera. Jatorri judua bazuen ere, bere familia inoiz ez zen harremanetan sartu komunitate horrekin.

1915ean, Austriako gudarostean sartu zen eta teniente izatera iritsi zen Italian gauzaturiko ekintzen ostean. 1918an, Vienako Unibertsitateko Medikuntza Fakultatean eman zuen izena. Hurrengo urtean, Freud ezagutu zuen, eta 1920ko urtarilean Vienako Sozietate Psikoanalitikoko kide izendatu zuten. 1922an, Medikuntza ikasketak bukatu zituen, eta 1934an, berriz, Psikiatriakoak. 1925 eta 1927 bitartean, bere lehen obrak idatzi zituen; horien artean, Orgasmoaren funtzioa (1927) nabarmentzen da. Hurrengo urteetan Informazio eta Ikertzaile Sexualen Sozietate Sozialista sortu zuen eta 1930ean Politika Sexual Proletariorako Sozietate Alemaniarraren (SEX-POL) sorkuntzan parte hartu zuen. Reichek buru-belarri eginiko ikerketek erakundearen inguruan mugitzen diren botere dinamikak ematen dituzte aditzera, hala nola giza harremanen izaera suntsitzailea jendarte errepresiboen baitan. Azkar, bere lana mehatxutzat jo zuten “egiaren, boterearen eta jakintzaren” eliteek.

Faxismoako masen psikologia obraren argitalpenak berehalako ondorioak ekarri zizkion, adibidez,



Alemanian jazarria izatea eta Alderdi Komunistatik kanporatua izatea. Hurrengo urtean, Psikoanaliaren Nazioarteko Elkartetik kaleratu zuten Izaeraren azterketa lana argitaratu ondoren.

1939an, AEBra joan eta New School for Social Research-en irakasten hasi zen. Halere, Europan jasandako erasoak berarekin batera joan ziren haraino. 1941eko abenduaren 12an, FBI-ko agenteek atxilotu eta epaitu egin zuten. Orgonari buruzko bere ikerketen ondorioz, orgon-energiaren metagailua sortuta, "Elikagai eta Drogen Administrazioak" (FDA) iruzur eta berritsukeriaz salatatu zuen. 1954an, Erakunde berak orgonterapiari buruzko ikerketak bertan behera uzteko exijitu zion.

1956an, FDA-ko agenteek bere Institutuko materiala suntsitu eta bere argitalpenak konfiskatu zituzten. 1957ko martxoaren 12an presondegira eraman zuten, eta azaroaren 3an zendu zen krisi kardiako batek jota. Hirurogeiko hamarkadako "iraultza sexualean", berriz ekin zitzaion Reichen ikerketei eta bere obrak berrargitaratu egin ziren.

Iturriak:

[www.ecovisoiones.cl](http://www.ecovisoiones.cl)

[www.sexologiaenincisex.com](http://www.sexologiaenincisex.com)

[www.elpais.com/articulo/opinion/REICH/\\_WILHELM\\_/PSIQUIATRA/largo/exilio/Wilhelm/Reich](http://www.elpais.com/articulo/opinion/REICH/_WILHELM_/PSIQUIATRA/largo/exilio/Wilhelm/Reich)

VINZENZ ROSE

Ekainaren 2an jaioa, Schönaun (Goi Silesiako eskualdea, Alemania), Anton eta Lisetta Rose gurasoekin Darmstadt hirira joan zen bizitzera, eta zinema-areto bat eduki zuten bertan. Vinzenz ikasle ona zen, musikarako dohain bereziarekin. Gurasoak lanetik kaleratu zituzten 1937an, arrazoi arrazistak tarteko. Ondoren, ehun-denda bat irekitzen saiatu ziren, baina hori ere debekatu egin zieten.

Hiru urte beranduago, familiaren jazarpen sistematikoa hasi zen, ijito komunitatearen gainerakoarekin batera. Familiak berau deportatzeko lehen saiakera bat ekidin ahal izan zuen, baina, egun batzuk beranduago, ez zuen beste erremediorik izan. Erbesteak Txekoslovakiara eraman zituen. Han, Vinzenz eta Oskar Rose anaiak euren gurasoengandik banatu ziren. 1941 eta 1942 artean, gizon biak etengabe ibili ziren batetik bestera beren burua jazarpen nazitik babesten saiatuz. 1942an, nortasun agiri faltuak lortu eta, horrela, euren familiarekin itzuli ahal izan ziren, aldi baterako Schwerinen zegoena. Salaketa baten ostean, familiak ziztu bizian egin behar izan zuen alde hiritik. Vinzenz, halere, hotel batean atxilotu eta Großstrelitzeko presondegira eraman zuten, Mecklemburgokon. Handik, Auschwitz-Birkenauko kontzentrazio-esparrura eraman zuten.

Bere familiako kide gehienak 1943. urtearen bukaeran atxilotu zituzten, eta Auschwitz-Birkenaura





deportatu. Horien artean, Vinzenzen gurasoak zeuden. Anton Rose Auschwitzen erail zuten eta Lisetta Rose, berriz, Auschwitzetik Ravensbrückeko emakumeentzako kontzentrazio-esparrura eramán zuten, non apur bat geroago hil zen.

Vinzenz Rose oso ahul geratu zen jasan behar zituzten bizi-baldintza jasangaitzen ondorioz, eta bizitza galtzeko beldur ere izan zen. Hala ere, biziraun zuen eta Natzweiler-Struthofeko kontzentrazio-esparrura preso eramán zuten bortxazko lanak egiteko. Behin Natzweillerren, tifus gaixotasuna hartu eta bere larruan bizi izan zituen Eugen Haagen medikuak esparruko presoekin praktikatzan zituen esperimenduak.

1944ko apirilaren 18an, SS-ek Vinzenz Rose, beste 50 presorekin batera (horien artean 29 Erromani), Natzweillerreko azpi-esparru batera bidali zuten, Neckareizekora, hain zuzen. Oskarren (anaia) eta errekrutatutako poloniar talde baten laguntzarekin, esparru horretatik ihes egitea lortu zuen. Heidelbergera joan eta, Oskarrek batera, gerra Italiako gerrako elbarriarena eginez igaro zuen.

Rose anaiak "Arrazakeria Biktima Ez Juduen Elkarte" sortu zuten 1956an, beranduago "Sintiseko Elkarte Alemaniarra" bihurtu zena, Erromanien eskubide zibilen aldeko lehen mugimendua Alemanian, eta mugarría Roma herriaren emantzipazio mugimenduaren barruan. 1974an, baliabide eskasekin, oroitarri bat altxatzea lortu zuen Auschwitz-Birkenauko esparruan eraildako biktima erromanien omenez. Borroka horri esker, 1982an orduko kantzilerrak genozidio Erromania arrazakeria arrazoiengatik burutu zela onartu zuen.

Bere konpromisoagatik, Vinzenz Roseri Merituaren Gurutze Federala eman zioten 1978ko abenduaren 4an. Alemaniako historian lehen aldiz, Erromani batek jaso zuen hain domina garrantzitsua. Vinzenz Rose 1996an hil zen. Bere iloba, Oskar Roseren semea, Romani Rose da, beren lana nazioartean Porrajmosaren Historia aztertzeari eskaini dioten historiagile garrantzitsuenetako bat.

Iturriak:

[www.porrajmostebisterduntumareanava.blogspot.com](http://www.porrajmostebisterduntumareanava.blogspot.com) "Vinzenz Rose eta Oskar Rose anaiak"

[www.romani.uni-graz.at](http://www.romani.uni-graz.at) (artikuluak: "Historia eta Politika. 1945etik orainaldira arte. Instituzionalizazioa eta emantzipazioa").

ANA FRANK

Annelies Maria Frank Höllander Frankfurten (Hesse, Alemania) jaio zen 1929ko ekainaren 20an. Bere gurasoak Otto Heinrich eta Edith Hollander ziren, eta ahizpa, berriz, Margot, Ana baino hiru urte zaharragoa. Familia judua zen, beraz, 1933an, nazionalsozialismoa boterera iritsi zenean, Amsterdamera (Holanda) joan



ziren bizitzera.

Anaren aitak, Frankfurtoko banku bateko langilea zenak, lana aurkitu zuen marmeladak egiten zituen Travis NV izeneko sozietate baten zuzendari. Ana eta bere ahizpa holandar gisa hazi ziren, baina euren sustrai alemaniar eta juduak ahaztu barik.

Hamahiru urteko neskatila zenean, Anak eguneroko batzuk ikusi zituen bere etxetik gertuko denda batean, eta bere bizitza haietariko batean kontatzea bururatu zitzaion. Anak, bere urtebetetzean eguneroko bat oparitzeko eskatu zion aitari, eta horrela hasi zen idazten.

1940ko maiatzaren 10ean, oste alemaniarrek Holanda inbaditu zuten. Familia jada ez zegoen salbu. 1942 eta 1944 artean, Anak bere inguruan gertatzen zen guztia kontatu zuen bere egunerokoan, besteak beste, naziek Holanda inbaditu zutela eta holandarrak eta komunitate judua nola tratatzen zituzten.

1942ko uztailaren 5ean, Frank familia, jatorri juduko beste asko bezala, justizia alemaniarrek deitua izan zen, zitazio baten bidez, kontzentrazio-esparru batera bidaltzeko. Familia osoa Anaren aitak lan egiten zuen eraikinaren atzealdera joan zen, bi solairuko ezkutaleku batera, sarrera apalategi batekin disimulatuta zeukana. Babesleku berrira beste pertsona batzuk iritsiko ziren, Anaren familia bezala bere burua ezkutatzeko eta deportatuak ez izateko leku baten bila zebiltzanak. Guztira, zortzi lagun bizi izan ziren espazio murriz hartan.

Bi logelarako sarrera (bina zeuden goiko solairuan eta behekoan) estaltzen zuen apalategiaren atzean, Frank familiarekin batera 8 lagun bizi ziren guztira. Pertsona gutxi batzuek baino ez zuten ezagutzen egoera, eta horiek eman zieten laguntza eta hornidura Anaren familiari eta gainerako errefuxiatuei konfinamenduak iraun zuen urteetan.

1942ko urriaren 9an, irrati ingeles bat entzuten ari ziren bitartean, gas-ganberetako preso juduen heriotza iragarri zuten. Ezkutalekuan izua zabaldu eta, ondorioz, errietak eta borrokak egon ziren. 1944an, irratiari esker, halaber, aliatu amerikarrek Normandiako hondartzak hartu zituztela jakin zuten, lasaitua eta itxaropena ekarri ziena.

1944ko abuztuaren 4an, Frank familia eta babeslekuan ezkutatzen ziren pertsonak harrapatu egin zituzten, auzokide batzuen salaketa tarteko. SD-ko (Segurtasun Zerbitzu Alemaniarrak) osteak ezkutalekuan sartu eta Gestapora eraman zituzten. Itaunketa egin ostean, SD-ren kartzela batera bidali zituzten Amsterdameko hirigunean.



1944ko abenduan, beren gurasoengandik banatuta, Ana eta Margot Alemaniara eramán eta Bergen-Belseneko (Behe Saxonia) kontzentrazio-esparruan sartu zituzten. 1945eko urtarrilaren 6an, haien ama, Edith, Auschwitz-Birkenauko kontzentrazio-esparruan zendu zen. Ana Frank kontzentrazio-esparruan hil zen tifus epidemia batek jota, 1945eko martxoaren 12an, 16 urte zituela, bere ahizpa baino apur bat geroago.

Otto aita izan zen bizirautea lortu zuen familiako kide bakarra eta berak kontatu zuen bere familiaren istorioa eta eman zion ezagutzera munduari bere alabaren egunerokoa, munduko best-seller handienetako bat izatera iritsiko zena. Berak sortu zuen Ana Franken etxe-museoa, bere familiarekin azken urteak igaro zituen leku berean. Ana Frank, hil ondoren, holokausto nazian hildako 1,5 milioi haurren ahotsa bihurtu zen.

Iturria:

P.Argenterren testuan oinarritua, hemen: [www.phistoria.net](http://www.phistoria.net)

## MARGARETE BUBER-NEUMANN

Militante komunista, eraso, jazarri eta giltzapetu egin zuten, hasieran espetxe eta bortxazko lanen esparru estalinistetan eta geroago nazien kontzentrazio-esparru batean. Espetxean zazpi urtez biziraun ondoren, idazten hastea erabaki zuen, erregimen totalitarioak salatuz eta estalinismoaren kontra borrokatuz.

Margarete Buber-Neumann (1901-1989) Prusian jaio zen, familia burges eta kontserbadore batean. 21 urterekin Berlinera joan zen, non militantzia komunistari ekin zion. Oso gazte ezkondu zen Rafael Buberrekin, militantziako kidearekin; bi alaba izan zituzten eta geroago banatu egin ziren. Bi urtez baino ez zen bizi izan bere bi alabekin, justiziak umeen jagoletza kendu arte.

Hogeiko hamarkadaren amaieran, Heinz Neumannekin maitemindu eta, ezkondu ez baziren ere, Heinzen abizena bereari gehitu zion. Heinz militante komunista gisa gailendu zen. Stalinen konfiantzazko gizona, nazioarteko hainbat kargu izan zituen, eta nazionalsozialismoaren aurretiko urteetan Alemaniako Alderdi Komunista zuzentzera iritsi zen. Nazismoa boterera heldu ondoren, bikotea lehenik Suitzara eta geroago Moskura erbesteratu zen.

Lau urte geroago, Stalinen erregimenarekin izandako tirabira ideologikoak zirela-eta Heinz Neumann



atxilotu zuten. Margaretek jakin zuen Heinz KGB-ren Lubianakako kuartel nagusian zegoela, baina inoiz ez zioten hura ikusten utzi, eta haren atxiloteta ere ez zuten inoiz onartu. 50 urte geroago jakin zuen zer gertatu zitzaion bere bikotekideari: Heinz Neumanni heriotza-zigorra ezarri eta 1937ko azaroan fusilatu zuten. Bere gorpua ez zen inoiz agertu.

1938ko ekainean, Margarete atxilotu eta behin-betiko espetxe zigorra jarri zioten Butirkin, Moskun. Butirkin hainbat hilabete egon ondoren, abokatu eta lekukorik gabeko auzia egin zen, non iraultza kontrako antolaketa eta sobietar estatuaren aurkako agitzioa leporatu zitzaion. Bost urteko kartzela zigorra jarri zioten; horren zati bat Karagandan, Kazakhstango estepa erdiko kontzentrazio-esparru erraldoi batean, bete zuten.

Bertan, Margaretek eta gainerako emakume presoek bizi-baldintza penagarriak pairatu zituzten, bereziki janari eza. Janaria sistema hierarkiko baten bidez antolatzen zen eta, horren arabera, ogi eta zopa anoa eskasa presoan lan kantitate eta kalitatearen arabera banatzen zen. Zenbat eta lan gutxiago egin, orduan eta janari gutxiago jaso. Horregatik, gehienak gosez hiltzen ziren, baita gaixotasunen ondorioz ere. Margaretek mediku bati esker lortu zuen bizirautea, izan ere, mediku hark, emakumea sukarrak eta eldarnioak jota ikusita, lan astunetarako gai ez zela zioen agiri bat sinatu baitzion.

1940. urtearen hasieran, berriro itzuli zen Moskun dagoen Butirkiko espetxera, eta hilabete eman zuen bertan. Otsailean, 28 gizon eta bi emakume eraman zituzten Brest-Litovskera, SESBekin muga egiten zuen hiri poloniarra. Talde horretako kide guztiak komunista ohiak ziren, gehienak Alemania eta Austriakoak, eta batzuk, gainera, juduak ziren. Stalinen gobernuak Hitlerrekin sinatutako ez erasotzeko itunaren ondorioz, nazien esku utzi zituzten bi erregimenen arteko harreman onaren adierazgarri.

Margareteren helmuga Ravensbrückeko kontzentrazio-esparrua izan zen; 1940ko abuztuaren hasieran ailegatu zen hara. Deuseztatze-esparru gisa baino bortxazko lanen esparru gisa diseinatuta, lan-baldintzak ez ziren beste esparru batzuetan bezain muturrekoak. Hala ere, Buber-Neumannek Ravensbrücken igaro zuen lehen urtean ehun preso hil ziren. Esparru hau gero eta handiago egiten jarraitu zuten, izan ere, eskulanez hornitzen baitzituen SS-ren josteta tailerrak, erakundearen uniforme guztiak egiten zituztenak, eta Siemens, esparru nagusian lantegiak eta presoentzako barrakoiak jarri zituen.

Margareteri, eremuan egon zen bitartean, hainbat eginkizun egokitu zitzaizkion. Bi urtez Jehovaharen Lekukoen blokearen arduraduna izan zen, esparru osoko barrakoirik txukun, ordenatu, garbi eta osasungarriena izan zena, esparrurako bisitak jasotzeko ere erabilia.

Gerrak aurrera egin ahala, baldintzek asko egin zuten okerrera eta hildako emakumeen kopuruak larriki



egin zuen gora. Buber-Neumannek hainbat lan egin zituen, Siemensen esklabo lanak barne, eta bizirautea lortu zuen. Gerraren bukaeraren hurbiltasunak masiboa bihurtu zuen erailketa. 50 urtetik gorako emakume guztiak, gaixoak eta lan egiteko ahulak, Winkelmann doktoreak egiten zuen heriotza-zerrenda luzean sartzen ziren. 1945eko otsailean, 4.000 emakume preso bidali zituzten gas-ganberetara.

Urte hartako apirillean, Margarete, beste atxilotu batzuekin batera, aske utzi zuten. Bi hilabetez erortzeko zorian zegoen Alemaniatik noraezean ibili zen. Espetxe eta kontzentrazio-esparruetan zazpi urte eman ondoren, Margaretek bere amarekin elkartzea lortu zuen. Jakin zuen bere aitak, gerran hildakoak, jarauntsirik gabe utzi zuela eta bere bi alabak Jerusalem bizi zirela, eta Sobietar Batasuna miresten zutela nazismoa garaitu zuen herrialdeetat hartzen zutelako.

Margarete Stockholmera abiatu zen, non aberats suediar batek etxe bat eta bulegari lana lortu zizkion. Bertan, Milenarekin, kontzentrazio-esparruan hildako lagunarekin, pentsatutako liburua idazten hasi zen: "Stalin eta Hitlerren gatibu", 1948an Suedian argitaratu zena. Liburu batek, lehen aldiz, paraleloki aztertu zituen kontzentrazio-esparruen unibertso biak. Bere ongilea sumindu egin zen uste zuelako liburua sobietarren aurkako propaganda-lana zela. Margaretek etxea eta lana galdu zituen eta Alemaniara itzuli zen, eta han bizi izan zen hil arte.

1963an, Milenaren biografia idazteari ekin zion. Lanaren emaitza omenaldi-liburua izan zen, bi emakumeak elkartu zituen adiskidetasun sakonaren adierazgarri. Ikerketa sakon baten ondorioz, idazleak Milenaren kazetaritza lana eta txekiar erresistentziarekiko konpromisoa berreskuratu eta gerra arteko garaian Praga eta Vienako mundu artistikoa aztertu zuen.

Margaretek, sobietar komunismoa salatzeaz eskaini zion bere bizitzaren gainerakoa. Ez nazismoa baino okerragozat jotzen zuelako, baizik eta nazismoa erori egin zelako eta estalinismoa, ordea, ez. 1957an, "Potsdametik Moskura. Galbide baten etapak" liburua argitaratu zuen, bere militantzia komunistaren inguruko liburu autobiografikoa; ondoren, "Munduko iraultza" (1967) eta "Klandestinitate komunista" (1970); "Itzalitako sugarra" (1976) eta, azkenik, aske geratu ondorengo urteak kontatzen dituen azken liburu autobiografikoa, "Askatasuna, berriro zara nirea" (1978), etorri ziren. Idazteaz gainera, gaiari buruzko hitzaldiak eta konferentziak eman zituen. Margarete Frankfurten hil zen 1989an, Berlingo harresia erori baino hiru egun lehenago.

Iturria:

[www.rebelión.org](http://www.rebelión.org) "Mujeres revolucionarias". Virginia Martínez.

